

txintxarri

Jaietan, dena ematera!

Hilaren 30ean hasiko dira aurtengo Zabaletako festak. Auzo elkarteak, ohi bezala, adin guztientzako egitarau zabala prestatu du / 6

TXINTXARRI

Herriaren aniztasuna, datutan

Hego Euskal Herriko immigranteen jatorria aztertu du Saretzen egitasmoak. Gaia Lasarte-Oriara ekarri du TXINTXARRI-K / 8-9

Kanpaina amaierako ekitaldiak aurrera eramane dituzte Lasarte-Oriako alderdi politikoek / 2

Lasarteko auto zirkuituaren 100. urteurrena ospatzeko kanpaina erakargarria iragarri du Aterpeak / 3

Ipar Euskal Herriko euskarari eta Herri Urrats jaialdiari buruz idatzi dute Oriarteko Euskara Batzordekoek / 4

Argantzun herrian izan da Xumela korua, bertako ikastolak antolatutako jaialdian parte hartzen / 7

Eguzki Areto Futbola klubeko infantilak Euskadiko txapeldun izan eta Espainiakora sailkatu dira / 10

LOKEko gimnastek domina ugari irabazi dituzte Gipuzkoako txapelketan; mailaz igo dira zenbait / 11

8

.URTEURRENA

LASARTEORIATARREN BEGIEN OSASUNA ZAINTZEN

Deskontu handiekin ospatuko dugu, aprobetxa itzazu!

Hartu hitzordua 943 377 455 telefonoan edo whatsapp bidez



Kale Nagusia, 15
LASARTE-ORIA
MULTIÓPTICAS

R.P.S. 9120

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



Maite duen herriaren alde lan egiteko konpromisoz

Lasarte-Oriako EH Bilduk mitina egin du. Bertan bildu dira datozen bozetarako zerrendakideak, horien artean Esti Garmendia Arrieta alkategaia. Berarekin egon da baita ere Arkaitz Rodriguez Torres, Sortuko idazkari nagusi eta EH Bilduko parlamentaria

Txintxarri

Julen Basterra gitarra jotzaileak eta Lierni Rekondo bertsolari eta sortzaileak eman diote hasiera ekitaldiari. Bi doinu jo ditu Basterrak berak bakarrik lehenik, eta hirugarrena jo bitartean, Rekondok, berak idatzitako testu bat irakurri du. Esti Garmendia Arrieta alkategaia hartu du hitza gero.

Sortzaileei eskerrak eman, eta herriko EH Bilduren zerrenda osatzen duten kide guztiak izan ditu gogoan. Horietako zenbait deitu ditu agertokira. Horiekin baita Buruntzaldeko alkategai batzuk zein Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaiak ere bai. Oholtza hartu dutenak, Lasarte-Oriako, Buruntzaldeko eta

Gipuzkoako pertsonen bizi proiektuak posible izateko lan egitera datozela azpimarratuz hasi du hitzartzea, eta nabarmendu, Lasarte-Oria periferia askoz osatuta dagoela, eta hori dela herria "aparteko" egiten duena.

Enpleguaz mintzatu da jarraian; lasarteoriarrek herrian lan egiteko aukera izan behar dutela nabarmendu du, eta Lasarte-Oriako industriaguneari egin dio erreferentzia gero. Auzoetako komertzio, zerbitzu eta ostalariek bizi dituzten zailtasunez ere hitz egin du, eta gailendu, herri bizi bat nahi bada, ezin direla horiek hiltzen utzi.

Hezkuntzari ere egin dio azpimarra. Adierazi du "kalitatez" ikasteko aukera izan behar dutela

herriko ikasleek, eta horretarako "espazio duinak" behar dituztela. Eta, nola ez, etxebizitzaren gaia ere ez du bazter utzi: "Ezinbestekoa da gure herrian bizi ahal izatea, bertan etxebizitza eskuratzeko eskubidea izatea". Hala, ziurtatu du herritarrek etxebizitza duina izateko eskubidea bermatu arte lanean jarraituko duela EH Bilduk.

Hori guztia esan ostean, bere alderdiaren konpromisoa zein den azaldu du: "Herrian ikasi, lan eta bizi". Gaineratu du, helburu hori lortzeko bidean ez dutela inor atzean utziko. Eta nabarmendu du baita ere Lasarte-Oria jatorri, pentsamendu, kolore eta hizkuntza anitzetako pertsonen osatzen duten



Esti Garmendia Arrieta Lasarte-Oriako EH Bilduren alkategaia, hizketan. EH BILDU

komunitate kohesionatu bat dela, eta horiek guztiek "modu duinean" bizitzeko eskubidea dutela.

Herriaren motor izan diren, eta hori eraldatu duten elkarteak ere gogoan izan ditu, eta azpimarratu, horiek guztiak "mimatu eta laguntzeko garaia" iritsi dela: elkarteek euren jarduna aurrera eramateko erabilera anitzeko espazio bat eraikiko dutela iragarri du, baita estalitako eremu bat ere, kaskoan.

Eta aurrez aipatutako guztia, "begidara feminista trasbertsal" batetatik egingo dutela ziurtatuz, hori dela EH Bilduren "egiteko moduaren oinarria".

Amaitzeko, datorren igandeko, hilak 28 hauteskundeei begira jarri eta azaldu du "inoiz baino gehiago" izango direla. Etorkizuneko maite duten Lasarte-Oria egiteko alderdiaren "konfiantza, konpromisoa eta lana" eskaini dizkie mitinera joandako militanteei.



LASARTE-ORIAKO EAU

Eider Mendozari herria erakutsi diote jeltzaleek

Gipuzkoako ahalzun nagusi izateko EAJren hautagaia da Eider Mendoza. Hilaren 23an Andoain eta Lasarte-Oriako udal talde eta biztanleekin izan zen, aipatu bi herri horiek ezagutzen. "Norabide argia eta kudeaketa ona dugu, ekonomia sendo eta lehiakorra eraikitzeko", nabarmendu zuen Mendozak. Gure herriko kale eta txokoak ezagutzeaz gain, lasarteoriarren iradokizun

eta ideiak lehen eskutik jaso zituen, Lasarte-Oriako taldeko zerrendaburu Jon Antxordoki eta gainerako kideak lagun zituela.

Bestalde, Lasarte-Oriako EAJk jakinarazi du herritarrek *issu.com* atarian deskarga dezaketela hilaren 28ko hauteskundeetara begira prestatu duten programa.



TXINTXARRI

Sozialistak, portalez portal

Lasarte-Oriako gaur egungo alkate Agustin Valdiviari babesa ematera etorri da Gipuzkoako ahalzun nagusi izateko PSE-EEren hautagai Jose Ignacio Asensio. Pandemia hasi baino lehenxeago kargua hartu izanagatik, kudeaketa "oso ona" egin duela eta herritarren "benetako arazoei" erantzun diela nabarmendu du. Edonola ere, herritarrei hilaren 28an boza ematera joateko eskatu die, "kudeaketa onarekin jarraitu eta iraganera ez itzultzeko, EH Bilduk gobernatu zuen garaira". Adierazpen horien ostean, hauteskunde programa portalez portal banatzen lagundu die Asensioek Lasarte-Oriako PSE-EEko kideei. Uzturre plazako 7. zenbakian izan dira, besteak beste.

Ehungarren urteurrenak, merkatarien kanpaina

Aterpea merkatarien elkarteak kanpaina erakargarria prestatu du bezeroentzat; Lasarteko auto zirkuituaren ehungarren urteurrena ospatzeko iragarri du ekimena. Hilaren 29tik ekainaren 11ra bitarte erosketak egiten dituztenek zozketa batean parte hartuko dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako auto zirkuituak 100 urte beteko ditu aurten, eta urteurren hori ospatzeko, Aterpea merkatarien elkarteak jarduera erakargarri bat prestatu du bezeroentzat. Ramon Ormazabal eta Ana Laureanok hitz egin dute Aterpearen izenean, eta datozen egunetan aurrera eramango duten kanpaina berriaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Ormazabalek azpimarratu du Lasarte-Oriako auto zirkuituaren ehungarren urtemuga ospatu asmoz prestatu dutela ekimena, xehetasunik ematen hasi aurretik, zirkuituaren historiari egin dio errepasso labur bat.

Azaldu du 1923. urtea jarri zutela martxan Lasarteko auto zirkuitua, hilabete zehatza ere ekarri du gogora: uztaila. Gaineratu du lehen ibilbidea 18 kilometrokoa izan zela, Oriatik abiatu, Andoaindik igarota Urnietara iritsi, Hernani zeharkatu eta berriz ere Oriara iristeko. Jakinarazi du orduan sei lasterketa jokatu zirela, eta 09:00etan hasi zela lehena. Kontatu du, gainera, hamahiru urte geroago eten zela zirkuituaren jarduna, Gerra Zibilaren ondorioz, eta 1940. urtean egin zutela berriz ere martxan jartzeko saiakera



Aterpea merkatarien elkarteko kidea, kanpaina aurkezten. TXINTXARRI

bat, baina ezinezkoa izan zela garai hartan lehertu zen II. Mundu Gerraren ondorioz.

Bezeroentzat kanpaina

Hilaren 29tik ekainaren 11ra arte iraungo du egitasmoak. Tarte horretan, Aterpeako establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroek, zozketa batean parte hartzeko papertxoak beteko dituzte. Saria ere iragarri du. Irabazleak Lasarteko auto zirkuitu historikoaren ibilbidea egingo du auto klasiko batean, eta hori amaitu ostean, Martin Berasategi jatetxean bazkalduko

du. Jakinarazi dute, saridunak lagun bat eraman ahal izango duela. Ohartarazpen bat ere egin du; auto klasikoan ibilbidea eta bazkaria ekainaren 24an izango direla, hortaz, saridunak egun horretan ezingo balu, inguruko norbaiti edo berak erabakitzen duenari eman ahal izango diola sariaz gozatzeko eskubidea.

Herriko haurrek ere ekimen honetan parte hartzeko aukera izango dute, goizez zein arratsalde. Izan ere, ekainaren 10ean puzgarriak izango dira Andatza plazan, eta kart-etan ibiltzeko aukera ere izango dute.



TXINTXARRI

Bi estiloren arteko topaketa

Andres Marin flamenko dantzariak eta Jon Maya euskal dantzariak *Yarin* ikuskizunaren emanaldia egin dute berriki kultur etxean. Julen Achiaryk jotako perkusio musikaren lotura haritik tiraka, elkarrizketa bat sortu dute bi dantzariak, bakoitzak bere kultura eta estilotik, elementu komunak bilatu dituzte.



TXINTXARRI

Zezen lagunartearen urteurrena

Palomo Linares elkarteak bere 56. urteurrena ospatu du egoitzan egindako bazkariarekin. Bazkideez gain, Agustin Valdivia alkatea eta Txus Alonso zinegotzia ere izan dira mahai inguruan, eta Irigoien jatetxeko Jon Moredok prestatutako bazkariarekin gozatu dute: piper erre entsalada, bakailao hostorea pikillo piper saltsarekin, idi haragia eta gazta tarta.

txitxardin

BRASA ETA TRADIZIOA

Zatoz sanpedroak gurekin ospatzera!

ZURE OSPAKIZUNAK BEREZIAK
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN

CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Udaberriari, presta ezazu
azala udarako!

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratu dugu

ZERBITZU MISTOAK

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



Eguraldi txarrari aurre egin eta jende ugari bertaratu zen Senperera hilaren 14an. HERRI URRATS

Euriak ez dezala euskara ito

Herri Urrats ospatu dute berriki. Ez dakienarentzat, Seaskak antolatutako ekitaldi bat da, Ipar Euskal Herriko irakaskuntzari laguntzeko helburua duena. Ikastolak suspertze aldera dirua lortzeko bide bat da, baina aurten zailtasun ugari izaten ari dira, eguraldiagatik

Maddi Lasa, Libe Elvira, Urko Ormazabal eta Aritz Ramos

Pasa den hilaren 14an Herri Urrats ospatu zuten. Ez dakienarentzat, jaialdi hori Seaskak antolaturiko Iparraldeko euskal irakaskuntza laguntzeko ekitaldi bat da, eta aurten, koronabirusak eragindako pandemiak eragindako guztiaren ostean, berebizikiko zailtasunak izan dituzte. Festa erraldoi horrek dirulaguntza lortzea du helburu, bertako ikastolak suspertzeko. Beraz, oso garrantzitsua eta beharrezkoa da.

Senperen (Lapurdi) ospatzen dute urtero Herri Urrats, bertako aintziraren inguruan, baina

aurten, eguraldia zela-eta, uholdeak tarteko, zailtasun handiak izan zituzten aipatu ekitaldiarekin aurrera jarraitzeko. Gune asko itxi behar izan zituzten eta kontzertu asko atzera bota, azken unean, horren ondorioz ekarpen ekonomiko handi bat galduz.

Eguneko ekimenak sei gunetan banaturik zeuden, nahiz eta azkenean bakarra geratu zen zabalik. Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa guneetan, kontzertuak eta dantzak ziren nagusi, Baxe Nafarroa gunean erronkak, eta Lapurdi gunean txarangek giro ederra sortu behar zuten. “Haurren xokoan” ere hainbat ikuskizun prestatuta zituzten

etxeko txikienek ere ospakizun horretaz goza zezaten. Horietatik guztietatik, ordea, Araba soilik ireki zuten azkenean.

Horretaz gain, aintzira inguruan, Elektropottote elektrotxaranga talde lasarteoriatarak jo zuen, beste hainbatekin batera, besteak beste, aurtengo Herri Urratseko kanta (*Urratsak zubi*) konposatu duen Su Ta Gar.

Ipar Euskal Herriko egoera

Ospakizun horrek urtero lortzen duen diru guztia hezkuntza euskalduntzera bideratzen du, hau da, Iparraldeko ikastolak laguntzera. Horrexegatik, aurten uholdeak direla eta,



IKASLEAK, KAZETARI

Oriarte institutuak eta TXINTXARRI aldizkaria elkarlanean ari dira 2022-2023 ikasturtean. Maiatzeko artikuluan Herri Urrats ekitaldia izan dute hizpide Euskara Batzordeko ikasleek. Ipar Euskal Herriko ikastolei laguntzeko jarduera hori nekez aurrera eraman ahal izan dute eguraldiagatik eta laguntza eske ari dira, galerak murrizteko.

jende gutxiago joan denez eta gune asko itxi direnez, ezin izan dute behar adina diru lortu. Hori dela eta, dirulaguntzen garrantzia azpimarratu nahi dizuegu.

Ipar Euskal Herrian hezkuntza euskaldun bat jasotzeko aukera izatea oso zaila da ez baita eskubide bermatu bat, eta Herri Urrats hau babesten duen ekintza garrantzitsua da. Gainera, Seaska da Iparraldean euskal hezkuntzaren alde egiten duen talde bakarra, hain zuzen ere, festa horren antolatzailea. Euskal Herriko iparraldeko gazteek, kasu askotan, ez dutenez hezkuntza euren ama hizkuntzetan egiteko aukerarik, horrelako ekintzak indartu beharra dago.

Horren adibide da Baxoa proba, Hegoaldeko USE probaren parekoa izango litzatekeena. Unibertsitatean sartzeko proba hori ezin izaten dute euskaraz egin euren hezkuntza ibilbide guztia euskaraz egin duten ikasleek. Horregatik, hainbat borroka eta aldarrikapen pizten

dira urtero-urtero eta ehundaka ikaslek azterketa ez gainditzeko arriskua hartzen dute euren desadostasuna erakusteko.

Diruz laguntzeko bideak

Beraz, bistakoa da Ipar Euskal Herriko euskararen egoera kritikoa dela, batez ere hezkuntzari dagokionez, eta horregatik, horrelako ospakizunetara bideraturiko ekintzak bermatzeko beharra dutela. Horretarako, Herri Urratsek lortutako dirua horretara bideratuta zegoen besteak beste. Hortaz, diru kopuru handia galdu dutela ikusita, lagundu nahi duenak edo lagundu dezakeenak hurrengo kontu zenbakietara diru laguntzak bidaltzea besterik ez du egin behar, bakoitzak nahi duen eta ahal duen neurrian. Azpiko taulan dituzue kontu korrante zenbakiak.

Irakurtzen ari zareten hau ikasturteko azken-aurreko artikulua da. Ekain erdialdean argitaratuko dugu azkena. Adi egon!

Laguntza emateko modua

Herri Urrats antolatzen dutenei eta Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasi eta irakatsi nahi dutenei laguntzeko aukera dute herritarrek. Hauek dira banku desberdinetako kontu korrante zenbakiak, bakoitzak ahal duen bezainbeste diru ingresatzeko:

- **Caisse d'Epargne** FR76 1333 5000 4008 9397 1116819.
- **Credit Mutuel** FR76 1027 8023 8500 0201 4340107.
- **Laboral Kutxa** ES87 3035 0059 8205 9073 1197.
- **Kutxabank** ES98 2095 5045 8710 6117 7332.
- **Bizum bidez**, Herri Urrats aukeratuta dohaintza bat egiteko.
- **Eusko bidez**, 790152743 kontu zenbakian.

Harremanetarako: Herri Urrats jaialdiaren webgunea (www.herriurrats.eus); Twitter kontua (@HerriUrrats); Instagram kontua (@herri_urrats); helbide elektronikoa (herriurrats@ikastola.eus).

automobil-zirkuituaren mendaurrena

Kontsumi ezazu Lasarte-Orian Maiatzaren 29tik ekainaren 11ra, eta parte har ezazu bi lagunentzako sari zoragarri baten zozketan

Lasarte-Oriako automobil-zirkuitu zaharrean zehar ibilbidea antigoaleko auto batean, eta bazkaria Martin Berasategui jatetxean (saria ekainaren 24an gozatuko da)

ACADEMIA DE INGLÉS STRATFORD

ADATS ORRAZTEGIA

ADMINISTRACIÓN DE FINCAS MILLA

ADMINISTRACIONES BARDAJI

ALBA MODA

AMA YOGA

ARAETA SAGARDOTEGIA

ARKUPE TABERNA

ARTESANÍA INÉS FLORES

AVENIDA TABERNA

BAR LASARTE BERRI

BAR ORIA-TXIKI

BAR-CAFETERÍA BUS

BERASATEGI KAFEAK

BIDEO LAGUNAK

BIZKER IMPRENTA Y RÓTULOS

BOTE TATTOO

CAFÉ-BAR BUENETXEA

CALZADOS LEDER

CARREFOUR EXPRESS

CENTRO DE MASAJE KIMA

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

DECO 75 TEXTIL HOGAR

DULCE TENTACIÓN

EGUZKI TABERNA

ELECTRICIDAD ARREGUI

FARMACIA ELI LASA

FERRETERÍA SUKOA

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

GESTORÍA BETELU

GIMNASIO SAITO

HALCÓN VIAJES

HAUNE INTERIORISMO

HERRIKO ETXEA

HIRU ALDETA TABERNA

IMAGINE JANTZI DENDA

INMOBILIARIA RK

LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL

LOTERÍA IZAGUERRI+C

MABEL MODA

MASAJISTA RAKEL

MERCERÍA ARITZA

MERCERÍA OLMÍ

MUEBLES ELBUME

MULTIÓPTICAS LASARTE

NATURHOUSE

NOAOA BIDAIK

NOGUES MODA

NORTH TEAM NUTRIZIOA

OIHANA ESTETIKA

OLA ENMARCACIÓN

ÓPTICA IRIGOYEN

ÓPTICA LIZARRI

ORBELA EKODENDA

ORMAZABAL LORADENDA

ORUE BOTIKA

OSTEOPATÍA NOELIA CALERO

PELUQUERÍA BEA

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

PELUQUERÍA MANI'S

PELUQUERÍA MARBELL

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR

PERFUMERÍA MAIANE

PLAN B KAFETEGIA

PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS

PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN

SANTANA INFORMÁTICA

SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS

SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

URRUZOLA MERTZERIA

VENTANAS ALCAR

VENTANAS ISU LEIHOAK

VIÑA DEL MAR KAFETEGIA

ZAPATERÍA ITURBE

ZUBIETA MOTOR



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATUA ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea

Eta, gainera, ekainaren 10ean kart-zirkuitua Andatza Plazan, goizena eta arratsaldean

Zabaleta auzora bidean da Teresa

Zabaleta Auzolan elkarteko kideek aurtengo auzoko jaietako egitaraua ezagutarazi dute. Adin eta gustu guztien neurria egin dute programazio hori, eta tartean iragarri dituzte berrikuntza batzuk. Hilaren 30ean hasiko dira festak, eta ekainaren 4an amaitu

Txintxarri

Badatoz urte sasoi honetan herrian tokatzen diren Zabaletako auzo jaiak, eta bertako auzo elkarteko lagunek prestatu dituzte horiek, mimo eta ilusioz, urtero lez. Auzoan bizi direnek ez ezik, lasarteoriatar guztiek goza ditzaten egin dute aurtengo plangintza ere. Duela ia hiru hilabete hasi zituzten antolaketa eta prestaketa lanak, martxoaren 6an zehatz-mehatz, eta lanketa horrek eman du bere fruitua. Adin guztientzako egitarau erakargarria ondu dute. Kolore more eta horiz atondutako eskuorri batean jaso dituzte jarduera guztiak, eta bertan iragarri dute zein egunetan hasi

eta amaituko diren festak: hilaren 30etik ekainaren 4ra.

Programatutako ekimen guztien artean, izango dira herritarrei ezagunak egingo zaizkien jarduera bat baino gehiago: bertsolarien emanaldia, erromeria eta proba misto nagusia, esate baterako. Baina badira zenbait berrikuntza ere. Horien artean, aipatzekoak asteen zeharreko haurrentzako jolasak eta zezensuzkoa. Horieta parte hartuko duten askok ziur ibili direla aurreko urteetan bonba japoniarrak lehertu ostean bertatik aireratutako ahalik eta goxoki gehien harrapatzeko ahaleginetan. Aurten bonba japoniarrik ez, baina horien

ordez, *Goxoraketak* izango direla azaldu dute antolatzaileek.

Omenaldi bat tarteko

Ekainaren 2an, ostiralarekin jaitsiko da Teresa sorgina Zabaleta auzora, eta ohi bezala, jaietako pregoia irakurriko dute antolatzaileek. Izango du, ordea, ezberdintasunik aurtengo jarduera horrek, izan ere, Alejandro Romo omenduko dute; Zabaletako auzotarra zen Romo, eta berak egin zituen Teresa Sorgiña eta auzoko buruhandiak.

Pregoa eta gero etorriko dira egun horretarako bestelako hainbat ekintza, besteak beste, dantza erakustaldiak, eta gaueko musika emanaldiak.



Teresa Sorgiña, iaz, Zabaletako frontoian. TXINTXARRI

Larunbatean ere izango da zerekin gozatu. Goizeko dianarekin ekingo diote egunari auzoan, eta bazkal aurretik, bermut musikatu iragarri dute. Arratsaldean, berriz, pala txapelketa izango da, eta iluntzean, bertso saioa eta herri afaria gero. Gauerdia baino lehen, irtengo da lehen aldiz zezensuzkoa, eta kontzertuekin luzatu ahal izango dute festazaleek goizaldera arte gaua.

Igandean, berriz, patata tortilla lehiaketa egingo dute, eta herri kirolak ere bai. Proba misto famatuak hartuko du gero auzoa, eta indarrak berreskuratzeko herri bazkaria izango da. Oaintxe in deu txarangak girotua. Andoni Ollokiegi bakarleriaren txanda izango da gero; bera arduratuko da arratsaldea girotzeaz. Eta, aurtengoarekin amaitzeko, azken traka jaurti eta Teresa Sorgiña agurtuko dute.

ZABALETAKO FESTAK - EGITARAUA

► Maiatzak 30, asteartea

18:00-20:00: Haurren jolasak talentu bila (Got talent) + serigrafia
20:00: Gas-gas + goxoraketak + buruhandiak + akelarre entsegua

► Maiatzak 31, asteazkena

18:00: Antzerkia kukuka
18:30-20:00: Haurren jolasak eskulanak
20:00: Gas-gas + goxoraketak + buruhandiak + akelarre entsegua

► Ekainak 1, osteguna

18:00-20:00: Haurren jolasak apar festa
18:30-20:00: Pintxo-potea
19:00: Batukada Dinbi Banda
20:00: Gas-gas + goxoraketak + buruhandiak + akelarre entsegua

► Ekainak 2, ostirala

18:00 Txokolatada

18:45 Kalejira Teresa Sorgiñarekin Basotxo plazatik abiatuta

19:00 Teresa Sorgiñari ongietorria Zabaleta frontoian

· Jaietako pregoia
· Dantza Jalgune
· Sorgin Dantza herrikoia

19:30 Gas-gas + goxoraketak + buruhandiak

21:00 Afari auzotarra (norberak berea ekarri)

23:00 Euskal dantza sorkuntza Kukuka

00:00 Rock kontzertua

01:30 Bide batez musika taldea

► Ekainak 3, larunbata

09:00 Diana

10:00 Herri kirolak

haurrentzat

11:00 Xumela

korua auzoan

zehar

11:30 Joxe Migel Aranzadiren oroimenez

XIV Eskoba txapelketa

13:00-15:00 Bermut musikatu

Ankoker taldearekin

15:30 Joxe Migel Aranzadiren oroimenez

XIV mus txapelketa

17:00 Erraldoiak, buruhandiak eta

dultzaineroak LOZET

17:30-20:00 Pala txapelketako finalak

Elektropottotte + Kukuka

20:00 Bertsolariak: Ane Labaka, Lierni Rekondo, Aitor Mendiluze

eta Iñaki Zelaia. Gai jartzailea: Zigor Iriondo

21:00 Gas-gas + goxoraketak + buruhandiak

21:30 Herri afaria

23:30 Akelarre dantza

23:50 Zezensuzkoa LOZET

Rock festa (gau pasa):

00:00 Alarma morea

01:30 Rukula

02:30 Dj Fantasia

► Ekainak 4, igandea

09:00 Diana

10:30-11:00 Patata tortilla txapelketa

11:00 Euskal dantza kukuka

12:00 Herri kirolak: Ane Zapirain, Amaur Arbelaitz, Julen Gabirondo eta Beñat Telleria

12:00 Txaranga Oaintxe in deu

12:00 Erraldoi eta buruhandiak LOZET

13:00 Proba misto nagusia

14:30 Herri bazkaria txarangak girotua

18:00-20:00 Emanaldia Andoni Ollokiegi

18:30 Toka txapelketa herrikoia

20:30 Azken traka

Teresa Sorgiñari agurra



Trebiñu koloreztatu dute

Argantzun ikastolak antolatutako Trebiñu Kantuz jaialdian parte hartu berri du Xumela koruak, Hondarribiako Olagarro eta Zarauzko Montetxio taldeekin batera. Egunpasa ederra egin zuten hilaren 20an: Trebiñu konderrria (Burgos, Gaztela Leon) koloreztatu zuten Porrotx pailazoarekin batera; ikastola horretako ikasleen azalpenak entzun zituzten, egunerokoan euskaraz ikasi eta bizitzeko oztopoei buruzkoak; eta Argantzungo elizan kontzertua eman zuten hiru abesbatzek. Horren ostean, gogotik dantzatu zuten guztiek elkarrekin. Lasarte-Oriatik autobus bete joan zen bertara.

Joxe Mari Agirretzek TXINTXARRI-ri kontatu dionez, "poz-pozik eta bihotza beteta" etorri dira Xumelako lagunak bertatik, hunkituta, "Euskal Herriarekiko maitasuna

ereitearen adibide bat" delako Trebiñuko herri horretakoa. Nabarmendu dute Argantzuneko herritarrek "sekulako erakustaldia" egin dietela: "Urteak daramatzate Euskal Herriaren parte izan nahi dutela esaten, baina agintariek ez diete jaramonik egiten. Hala ere, ikastola jarri zuten martxan duela hogeitau urte, eta jo eta ke ari dira lanean euskaraz ikasi eta bizitzeko".

Hurrengo emanaldia, Zabaletan Xumelakoek aurreratu dute hurrengo emanaldia Zabaletako jaietan egingo dutela, ekainaren 3an, larunbatarekin,

"POZ-POZIK ETA BIHOTZA BETETA" ITZULI DIRA HERRIRA XUMELA KORUKO KIDEAK



Porrotx pailazoa eta Xumela koruko zuzendari Josu Txapartegi 'Txapas', Argantzunen. J. M. AGIRRETXE

11:00etan. Kantu eta dantza jira egingo dute auzo horretan zehar.

Saio hori ez ezik, ekain amaieran hasiko diren San Pedro Jaietarako beste bat prestatzen ari dira koruko kideak. Laster emango dituzte xehetasun gehiago.

45-50 lagun inguru elkartzen dira astelehenero Oriarte Landaberri institutuan, 19:30ean, ondo pasatzeko, bizitzari alaitasun puntu bat emateko eta euskal kantu tradizionalak abesteko asmoarekin.

**KOMERTZIO TXIKI
HERRI HANDI**

**LASARTE-ORIA
GREMIOAK**

ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66

BARNE-DISEINUA



ELEKTRIZITATEA



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTITAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

**ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA**

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

**31. urteurrena
ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

ITURGINTZA

**ELOLA
ITURGINTZA**

**ITURGINTZA | GASA
BEROKUNTZA | ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Galdara, berogailu eta
termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06
elolaiturgintza@gmail.com
LASARTE-ORIA

IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

• BARRUKO BERRIKUNTZAK
• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN
VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
• GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



"Gustura bizi naiz hemen, Lasarte-Orian"

ONDINA PEREZ CASCO
NIKARAGUA

Nolako harrera herria da Lasarte-Oria?

Hogei urte daramatzat Lasarte-Orian bizitzen, eta hona iritsi nintzen unetik jende ona topatu dut beti. Bi seme-alaben ama bakarra nintzen Nikaraguan, eta eta han une hartan zegoen egoera politikoa eta ekonomiko zailagatik ez nuen migratzea beste aukerarik izan. Haurrak Nikaraguan utzita etorri nintzen, eta hemen lau urte egin nituenan ekarri nituen nirekin. Hirugarren seme bat ere badut; hori hemen jaio zen. Hasierako urte haietan babesa eman zidan jende askok hemen. Egia da modu xenofoboan tratatu nautenak ere topatu ditudala, baina gutxiengo izan da.

Iritsi nintzen lehen unetik aritu naiz lanean, baina bertakoen arteko integrazioa nire kasuan ez da hain erraza izan; hizkuntzarekiko zailtasuna izan dut, adibidez. Saiatu nintzen euskara eskolak hartzen, baina lan ordutegiak zirela eta, ezinezkoa izan zen. Dena den, lasarteoriarrekin tratatu ona izan dut beti; atseginak dira, sinpatikoak. Gustura bizi naiz Lasarte-Orian.



"Saiatzen ari naiz gaztelania ikasten"

VICTORIA CHERNENKO
UKRAINA

Nolako harrera herria da Lasarte-Oria?

Duela urtebete etorri nintzen Lasarte-Oriara, gu bizi ginen hiria (Kramatorsk) lehen aldiz bonbardatu zutenean. Nire semearen eskolako motxila ekarri nuen nirekin: gauza pertsonal batzuk eta dokumentuak zeuden barruan.

Herrira etorri naizenetik oso gustura bizi naiz. Herritarrei eskertu nahi diet nirekin beti jatorrak eta adeitsuak izateagatik. Gaztelania ikasteko eskoletara joaten naiz HHI-EPA zentrorra, eta erraza izaten ari ez den arren, gogor saiatzen ari naiz. Leire, Arantxa eta Mikel dira irakasleak, oso onak dira hiruak.

Duela gutxi, Usurbilera txango bat antolatu zuten Arantxak eta Mikelek. Artzabal jatekera joan ginen, nire akuarela margoekin egindako erakusketa bat ikustera, ederki pasa genuen. Ukrainan artista eta margolaritza irakasle izan naiz 30 urte baino gehiagoz. Margotzen dudanean, bizirik sentitzen naiz. Eskola batzuk ematen dizkiet herritarrei, adibidez, Rosari. Oso zoriontsu naiz une horietan.



"Jende askori lagundu diogu lana bilatzen"

NICU DENISOV
ERRUMANIA

Nolako harrera herria da Lasarte-Oria?

Herri ona da bizitzeko, polita, eta ongi kokatua. Hamabi urte daramatzat hemen bizitzen; Euskal Herrian, 22. Tulcea hirikoa naiz ni jaiotzez. Marinela aritu nintzen etorri aurretik, eta, gaur egun, Gizarte Etxea tabernaren jabea naiz. Edariak eta jatekoa zerbitzatzeaz gain, bataioak, jaunartzeak eta urtebetetze festak egiten ditugu. Horrez gain, Gobernu Kanpoko Erakunde gisa lan egiten dugu Lasarte-Oriara etorri berri den jendearekin, goizetan batez ere: harrera, aholkularitza, lana bilatzen lagundu... Oso langileak gara errumaniarrak: gaur egun, adibidez, obra gutxi ikusiko dituzu jatorri horretako langilerik gabe; aldarmioetan, soldatzaila gisa... Edozertan. Jende askori lagundu diogu.

Decebal Errumania-Euskadi elkarteko lehendakari ere banaiz. Abenduaren 1ean ospatzen dugu jaioterriaren eguna: ehun bat pertsona elkartzen gara eta gure musika, janari eta kultura izaten da festaren ardatza.



"Orain Aljerian sentitzen naiz atzerritar"

MOHAMED GOUGAM
ALJERIA

Nolako harrera herria da Lasarte-Oria?

la hamar urte daramatzat Euskal Herrian bizitzen. Lasarte-Orian bizi aurretik, Donostian bizi nintzen, eta handik etorri nintzen hona. Familia bat osatu dut herri honetan, eta nire dendaria ere badut. Negozioaren gaineko eraikinean bizi naiz; bertan daramatzat bederatzi urte.

Atsegin dut herri honetan bizitzea. Euskal Herria etorri aurretik Alemanian eta Finlandian bizi nintzen eta izugarritzko aldea dago. Hemen nire herrian nagoela sentitzen dut, iparraldeko herrialde horietan, aldiz, atzerritarra nintzela sentitzen nuen uneoro. Hemen oso ondo jaso nau jendeak, adibidez, sekulako tratua dut. Euren bizitza ezagutzen dut, eta euren nirea ere bai. Gustura aurkitzen naiz Lasarte-Orian. Pentsa, Alejiara, nire jaioterrira joaten naizenean sentitzen naiz atzerritar orain.



"Lasarte-Oria herri bizia iruditzen zait"

UUGANTSETSEG BATSUKH
MONGOLIA

Gustura parte hartzen duzu egitasmoan?

Duela sei urte inguru etorri nintzen Lasarte-Oriara bizitzera. Ez da erraza izaten bizilekuz aldatzea eta ez nintzen berehala moldatu, baina gaur egun oso gustura bizi naiz hemen. Iruditzen zait oso bizia dela herria, haurrentzako nahiz helduentzako jarduerak ugari egiten dituzte eta asko dibertitzen naiz, egia esan. Gainera, herritarrek oso atseginak direla iruditzen zait. Uste dut Lasarte-Oria oso ongi kokatuta dagoela eta erraza dela beste toki batzuetara mugitzea naturaz gozatzeko: hondartzak, mendiak, eta abar. Beraien herrialdeetatik Euskal Herria etortzen direnei gomendatzen diet Lasarte-Oria.

Hizkuntzekin ongi moldatzen bazara ez zait zaila iruditzen lan bat topatzea; beste gauza bat da zure gustukoa izatea edo ez, denbora gehiago behar izaten da horretarako. Ahal izanez gero, atsegin duzun horretan formatzea aukera ona izan daiteke.

TXINTXARRI aldizkaria kanal berezi batean jasotzen ari da Saretzen egitasmoaren bueltan argitaratzen ari den guztia. Sakelako telefonoa hartu eta eskaneatu ezazu alboko QR kode hau eduki guztiak ikusi ahal izateko.

Immigranteen jatorriari buruzko datuekin eman dute tokiko hedabideek eta EITBk bigarren kolpea; aurrenekoan herrien aldaketa demografikoa jorratu zuten, iazko abendu amaieran.



"Lasarteoriatarrak oso atseginak dira, maitagarriak"

AN LIU
TXINA

Nolako harrera herria da Lasarte-Oria?

Zortzi urte daramatzat Lasarte-Orian bizitzen. Bertako jendeak ondo jaso nau; lasarteoriatarrak oso atseginak dira, eta esan dezaket gustura bizi naizela hemen. Oso maitagarria da jendea. Nire negozioa



martxan jartzeko aukera izan dut, eta horri dagokionez, azaldu nahi dut jendeak oso ondo erantzun diola; lasarteoriatarrak baloratzen du egiten dudana. Bi seme-alaba ditut, eta herriko ikastetxean ikasten dute. Gustura dabilta horiek ere.



Infantil mailako jokalariek, prestatzaileak eta gurasoak lortutako garaikurrarekin. EGUZKI ARETO FUTBOLA

Eguzkiko infantilak, Euskadiko txapeldun

Eguzki Areto Futbol taldeko infantilak Euskadiko Jokoak jokatu dituzte Gipuzkoaren izenean. Bizkaiko Sestao AF eta Arabako Ibaialde Salburua FCD izan dituzte aurrez aurre. Espainiako txapelketako multzoko faserako sailkatu da taldea

Txintzarri

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko infantil mailako talderik onenak bildu ziren hilaren 20an, Zumarragan Euskadiko Jokoetako azken fasea jokatzeko. Arabatik Ibaialde Salburua, Bizkaitik Sestao AF eta Gipuzkoako ordezkarria Lasarte-Oriako Eguzki taldea izan zen. Hiruko bat jokatu zuten eta Gorka Redondok zuzentzen duen taldeak jaso zuen garaikurra.

Arabako eta Bizkaiko taldeek eman zioten hasiera lehiari eta bana berdindu zuten. Penaltietan 3-2 gailendu zen Gasteizeko ordezkarria.

Salburuaren aurka jokatu zuen lehen neurketa Eguzkik.

Intentsitate handiko neurketa izan zen eta lasarteoriatarrek joko kontrolatu arren, husnako berdinketarekin konformatu behar izan zuen talde hori-beltzak. Penaltiak bota zituzten eta arabarrek lehenengoan kale egin zuten; herriarrek, aldiz, hiru sartu zituzten (Alex Regueira, Beñat Murillo eta Aratz Fuentes).

Alabaina, Eguzkiko gazteek ez zuten ia atsedunik hartzeko tarterik izan; jarraian Sestao izan baitzuten aurkari. Bizkaitarren aurkako norgehiagoka bestelakoa izan zen. Hasieratik nagusi izan zen Lasarte-Oriako taldea. Sestaok aukerarik sortu arren, Alex Regueira eta Aratz Fuentesen goleak neurketa erabaki zuten.

Lehiaketako hiru emaitzak kontuan izanik, Eguzki Euskadiko Jokoetako txapeldun izan zen eta infantilak kopa jaso zuten.

Gainerako txapelketak

Garaipen horri esker, Espainiako txapelketako multzoetako fasea jokatu du taldeak Toledon, ekain hasieran. Espainia osoko taldeak lau multzotan banatuko dituzte eta lehen sailkatuek azken faserako txartela eskuratuko dute.

Bien bitartean, hilaren 28an, Gipuzkoako txapelketako finalari aurre egin beharko dio infantil taldeak. Antiguokoren aurka neurtuko ditu indarrak Bidebietako kiroldegian, Donostian.

Ostadarreko juniorrek Gipuzkoako finala jokatu dute

Aldapeta Maria B eta Harresi 2 taldeak garaituz amaitu du azken fasea. Bera Bera izango du aurkari finalean

Txintzarri

Bigarren urtez jarraian, Ostadar SKTko Boleibol saileko jubenilek Gipuzkoako txapelketako finala jokatu dute; Bera Bera taldea izango du aurrean. Txapelketako azken fasea ederki amaitu du

Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak -bi garaipen erdietsi zituen- eta ez du partidarik galdu finalerako bidean.

Ligako azken jardunaldian hitzordu bikoitza izan zuen jubenil taldeak. Urdin-beltzek

hilaren 19an, Aldapeta Maria B izan zuten aurrez aurre eta egun bat gearoago Harresi 2ren aurka neurtu zituzten indarrak. Bietan 0-3 markagailuarekin nagusitu zen Ostadarreko taldea.

Hilaren 27an, sailkapeneko bigarren postua amaitu duen Bera Bera izango du aurkari. Bi taldeen arteko azken neurketa borrokatua izan zen, azken setean erabaki zen garailea. Gipuzkoako txapeldun titulua mantentzeko lan zaila izango du, beraz, Ostadarreko taldeak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO KADETE MAILA

Hernani CD - Ostadar SKT (atzeratutako partida)

Larunbata, 12:00. Zubipe, Hernanin.

KADETE 1. MAILA, KOPA, KANPORAKETAK

Ostadar SKT B - Ordizia B

Larunbata, 11:30. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

INFANTIL MAILA, FINALA

Eguzki AF - Antiguoko KE. Clin. Dental Goyeneche

Igandea, 12:40. Bidebieta kirol., Donostian.

BOLEIBOLA

JUBENILA, FINALA

Ostadar SKT - Bera Bera

Larunbata, 11:30. Pio Baroja kirol., Donostian.

GIMNASTIKA

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko amateur mailako senior eta jubenil gimnastek Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.

Igandea, 09:30 eta 16:30. Irlandesas ikastetxea, Leioa, Bizkaian.

IGERIKETA

EUSKADIKO JOKOAK

Buruntzaldea IKTko Iñaki García, Ibon Eloia, Mario Amantegi, Oihan Matute, Kimetz de la Cruz, Amaur Iparragirre, Nora Miguez eta Itxaso Iparragirre kideak Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan lehiatuko dira Gipuzkoako selekzioaren izenean.

Larunbata, 10:00 eta 16:30. Majori kiroldegia, Ordizian.

FRANCE WORLD SERIES

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire France 2023 World Series igeriketa egokitutako proban Espainiako selekzioarekin lehiatuko da.

Ostiraletik igandera, Limoges, Frantzia.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko absolutu mailako zein herriko atletek Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Kote Olaizola estadioan, Donostian.

EUSKADIKO JOKOAK

Ostadar SKTko Eider Redondo, Iugatz Almago, Xabier Martin eta Kevin Pinza infantilak Euskadiko Jokoetan parte hartuko dute Gipuzkoako selekzioaren izenean.

Larunbata, 10:30. Argixao estadioan, Zumarragan.

PILOTA

SAN PEDROETAKO TXAPELKETA

Esku pilotako Sanpedroetako txapelketari hasiera emango diote.

Larunbata eta igandea, 10:30. Loidibarren pilotalekuan.

ZABAELETAKO PALA TXAPELKETA

Zabaletako I. Pala txapelketako lehen jardunaldia jokatu da.

Igandea, 10:30. Zabaletako pilotalekuan.

INFERNUKO PALA TXAPELKETA

Infernuko III. pala txapelketako final erdiak eta final handia lehiatuko dira.

Igandea, 16:30. Zabaletako pilotalekuan.

SQUASH

SQUASH TXAPELKETA

33. squash txapelketako lehen neurketak jokatu dituzte.

Astehenetik ostiralera. Arratsaldeetan. Maialen Chourraut kiroldegiko squash pistan.

PADELA

PADEL TXAPELKETA

VI. Lasarte-Oria Padel Txapelketa txapelketako jardunaldia izango da.

Ostiraletik igandera. Maialen Chourraut kiroldegiko padel pistan.

LASTERKETA

ZALDIBIAKO MENDI LASTERKETA

Hainbat herriar eta herriko taldeetako IV. Zaldibiako Mendi Lasterketa proban egingo dute lasterka.

Larunbata, 09:00. Zaldibian.

EREÑOTZUKO MENDI LASTERKETA

Hainbat herriar eta herriko taldeetako ordezkariek XI. Ereñotzuko Mendi Lasterketan parte hartuko dute.

Larunbata, 10:00. Ereñotzun.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Lasarte-Oriako triatletek Mutrikuko Sprint proba lehiatuko dute.

Maiatzak 31. Arratsaldea. Hipodromoa, Donostian.

ESKOLA KIROLA

JAIALDIA

Eskola Kirolako gazteek ikasturte amaierako jaialdia izango dute:

- 09:00-10:30 LH3-4, areto futbol kantxa.

- 09:00-10:30 LH5-6, pilotalekua.

- 10:30 -12:00 LH1-2, pilotalekua.

Larunbata. Goiza. Michelin kirol gunean.



Ostadarreko jubenilak ez du neurketarik galdu bigarren fasean. TXINTXARRI

LOKEko gimnastak, podiumak metatzen

Amateur mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatu dute LOKEko gimnastek. Bakarka zein taldeka maila eta tresna ezberdinetako lehen postuetan izan dira herriko taldeko kideak. Maila igoera ere lortu dute lehen bi postuetan sailkatu diren gimnastek

Txintxarri

Era ezin hobean amaitu dute lehiaketa denboraldia Lasarte-Oriako Kirol Elkarte (LOKE) kideek. Azpeitiko kiroldegian Amateur mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatu zuten hilaren 20an. Lurralde osoko gimnastak bildu ziren bertan eta tapizean zein podiumean izan ziren protagonista LOKEko gimnastak (ikus taula).

Dominez gain, lehen eta bigarren postuak eskuratu dituzten gimnastek hurrengo urtera begira, maila igoera lortu dute.

Taldeko prestatzaileak harro daude denboraldian zehar gimnasta guztiek egindako lanarekin.



LOKE gimnastikako kideek lortutako podiumetako batzuk. LOKE GIMNASTIKA

Amateur txapelketako emaitzak

Senior A

- **Garazi Gomez** 7º
- Pilota 7º
- Zinta 3º

Senior B

- **Paula Martinez** 1º
- Pilota 1º
- Zinta 1º

Jubenil A

- **Miriam Prieto** 2º
- Uztaia 1º
- Mazoak 2º

Jubenil B

- **Erika Tejero** 2º
- Uztaia 5º
- Mazoak 3º

• Maria Polina

- Uztaia 3º
- Mazoak 4º

• Aitana Molano

- Uztaia 1º
- Mazoak 6º

Jubenil B taldea

- **LOKE** 3º

Kadete A

- **Maitane Sarmiento** 1º
- Pilota 1º
- Mazoak 2º

Kadete B Bikoteak

- **Noa del Amo eta Saioa Boyero** 2º
- Pilota (Boyero) 2º
- Mazoak (del Amo) 2º

• Maialen Aranzabe eta Ane Lopez

- 4º
- Pilota (Lopez) 3º
- Mazoak (Aranzabe) 6º

Kadetea B taldea

- **LOKE 1** 4º
- **LOKE 2** 13º

* Beltzez podiumeko postuak



Alex Alkain eta Oinatz Almagro, podiumean (ezkerrean); Iugatz Almagro eta Eider Redondo, proba konbinatuetako dominekin. OSTADAR ATLETISMOA

Lasarte-Oriako atletak, domina ugari Gipuzkoako txapelketetan

Adin txikiko zein proba konbinatuetako Gipuzkoako txapelketan podiumean izan dira herriko atletak

Txintxarri

Hilaren 20an eta 21ean, Ostadar Atletismo saileko kideek eta herriko atletak Gipuzkoako txapelketa ezberdinei egin zieten aurre Donostiako Kote Olaizola estadioan.

20, 18 eta 16 urtez azpiko zein master mailako lehia izan zen

lehen egunean. Hamar herritar izan ziren proba ezberdinetan parte hartzen eta lau domina jantzi zituzten; horietatik hiru 18 urtez azpiko mailan eskuratu zituzten Ostadar SKTKo kideek.

Alex Alkain garaile izan zen luzera jautzik proban 6,92 metroko markarekin. Lehen saiakeratik

buru izan zen talde urdin-beltzeko gaztea eta bosgarren jautzian lortu zuen uztailan Gijonen jokatu duten 18 urtez azpiko Espainiako txapelketarako txartela.

Horrez gain, 100 m. lasterketan, bere sailkapeneko probako buru izan zen (11,40), eta, orokorrean, zilarrezko domina lortu zuen Alkainek.

Luzera jautziko podiumean Oinatz Almagro taldekidea ere izan zen. 6,21 metroko jautzia egin eta bere marka ontzeaz gain, brontzeko postuan amaitu zuen lehia.

Herritarren azken domina Atletico Renteria taldeko Jose Ramon Latorre herritarrek eskuratu zuen master mailako 100 m. lasterketan; garaile izan zen, 11,82 m.

Podiumentik gertu geratu zen Ostadarreko Hodei Garcia pisu proban. 8,53 metroko jautziketarekin laugarren izan zen.

Proba konbinatuak

Eskolarteko proba konbinatuetako txapelketako jokatu zuten hilaren 21ean. Ostadar SKTKo infantil eta alebin mailako 11 kide izan ziren proba ezberdinak burutzen.

Alebinek hiru lehiari egin behar zioten aurre Gipuzkoako txapelketan: 60 m., luzera jautzia eta pisua. Infantilek, aldiz, lau proba gainditu behar izan zituzten: 80 m., luzera jautzia, pisu jautziketa eta 80 m. hesiak. Maila horretan Eider Redondo eta Iugatz Almagro podiumean izan ziren; Redondok urrezko domina jantzi zuen eta Almagrok, aldiz, brontzekoa.

Redondok garaipena erdietsi zuen luzera proban (5,12 m.) eta 80 m. hesi proban (12,38); bigarren izan zen 80 m. lasterketan (10,42) eta laugarren pisu proban (7,94 m.). Lehia ezberdinen emaitzen puntuazioak lehen postua eman zion atleta gazteari.

Almagrok gorabehera gehiago izan zituen bere jardunetan. Laugarren izan zen 80 m. lasterketan (10,53); bigarren luzera jautzian (5,08 m.), hamaikagarren 6,82 metroko pisu jautziketarekin eta seigarren 80 m hesi lasterketan (13,39).

Alebin kategorian, Dana del Amo izan zen Ostadarreko atletatik hoberena, laugarren postuan amaitu zuen txapelketa gazteak.

Hipodromoko udako jardunaldia hasteko prest

Hilaren 31n hasi eta irailaren 10ean amaituko da. 77 lasterketa lehiatuko dituzte

Txintxarri

Udako denboraldia hastear da Donostiako Hipodromoan; maiatzaren 31n, asteazkenarekin, lehen jardunaldia jokatu da.

Gainerako hitzorduak ekainaren 7an eta 15ean; uztailaren 1ean, 9an, 16an, 22an eta 30ean; abuztuaren 6an, 13an, 15ean, 20 eta 27an eta irailaren 2an eta 10ean.

Saio gehienak arratsalde izango dira. Bi jardunalditan, uztailearen 9an eta abuztuaren 15ean, gainera sei lasterketaz gozatu ahalko dute zaletuek. Guztira 77 lehia izango dira eta 867.750 euro banatuko dira saritan.

Futbol talde gehienek denboraldia amaitu dute

Ostadar eta Texas Lasartearra futbol taldeek ligako azken jardunaldia jokatu dute hilaren 20an eta 21ean. Kadete mailako Ostadar B taldeak kopa lehiaketako kanporaketa jokatu du Ordizia Bren aurka, hilaren 27an, Michelin kirol gunean

Txintxarri

Futboleko denboraldia amaitu da. Lasarte-Oriako Ostadar eta Texas Lasartearra klubetako taldeek azken jardunaldia jokatu zuten hilaren 20an eta 21ean, talde urdin-beltzeko Ohorezko Kadete Mailako jokalariek izan ezik. Kadeteek Hernaniren aurka jokatu behar zuten Zubipen, hilaren 20an; Urumearen ur mailaren igoera dela-eta, zelaia ez zegoen jokatzeko moduan. Astebete atzeratu dute partida eta hilaren 27an, larunbatean emango diote amaiera denboraldiari gazteek.

Gainerako taldeei dagokionez, denetariko emaitzak erdietsi zituzten etxean nahiz kanpoan: Ostadarreko I. Erregionalak 3-0 irabazi zion Usurbili kopako lehiari; talde urdin-beltzeko Ohorezko Jubenilak 2-0 garaitu zuen Lengokoak; Jubenil I. mailako kopan, Texas Lasartearra 4-2 gailendu zen eta Kadete I. mailako lehiaketa berean, Ostadar B eta



Texas Lasartearra eta Aizkorri taldeetako jokalariek baloiari buruz jo nahian. TXINTXARRI

C taldeek garaipena erdietsi zuten, 0-1 eta 3-1, hurrenez hurren.

Berdinketak ere izan ziren. Gorengo mailako Ostadarrek husna egin zuen Hernani Bren aurka; Erregional I. Mailako kopan, Texas Lasartearra eta Pasaiak 3-3 amaitu zuten neurketa; Jubenil I. Mailako igoera fasean, Ostadarrek 2-2 egin

zuen eta zuri-urdinen Kadete I. mailako taldeak 0-0 amaitu zuen Aizkorriren aurkako kopako lehia.

Ohorezko Erregional mailan eta Infantil Txiki mailako kopan Ostadarreko taldeek aurkako emaitzak izan zituzten. Real Sociedad taldea 0-7 gailendu zen erregionalen norgehiagokan.



Taldeekideek Iraia haizatu zuten omenaldiko momentu batean. REAL SOCIEDADI

Irairi, omenaldi xumea

Z7 zelaian jokatu zuen azken eguna izan zen hilaren 19koa Iraia Iparragirre Argandoña herritararentzat. Real Madrilen aurka neurtu zituzten indarrak txuri-urdinek eta bigarren zatian atera zen herritarra. Aurkako emaitzari itzulia emateko gogor egin zuen lan Lasarte-Oriako jokalariek. Banako berdinketarekin konformatu behar izan zuen Realak, baina partida osteko oroitzapen ederrak izango ditu taldeko kapitainak. Real Sociedad, Z7ko zaletu, taldekide zein bere lagun omenaldi xumea jaso zuen Iraiak. Taldekideek dantzatutako Agurra, Maddi Larrañagaren bertsoa, lore sortak, txapela edo guztien artean abestutako En Tol Sarmientoren Zurekin batera...Guztien berotasuna eta aintzatespena jaso zuen jokalariek. Eta azken agur modura, Iraiak taldea animatzeko egin ohi zuten oihua entzun zuten Zubietako zelaira joandako zaleek.

Infantil taldeak, aldiz, kopako final laurdenari egin zion aurre. Urdin-beltzek ezin izan dute aurrera egin, ordea; Amaikak Bat taldeak 1-0 irabazi zuen.

Kopako kanporaketa

Eta guztien artean, Ostadar B Kadete I. mailako taldeak

bakarrik jarraituko du lehiari; bigarren multzoko lehen postuan sailkatu eta kopako kanporaketa jokatu du etxean.

Final erdietara iristeko asmoarekin, hilaren 27an, larunbatekin, Ordizia Bren aurka neurtuko ditu indarrak, 11:30ean, Michelin kirol gunean.

Intzako pilotariak borrokatu arren, ezin garaipena eskuratu

Jokatutako lau partidetan aurkako emaitza izan dute. Lau eta erdiko txapelketan bigarren fasea hasiko dute

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko pilotariak ez dute zorterik izan pasatako jardunaldian. Etxean zein kanpoan arerioa gailendu da.

Loidibarren pilotalekuan jokatu bi neurketaz gozatu ahal izan zuten herriko pilota zaletuek.

Lehen partidatan, alebin mailako neskek Gipuzkoako txapelketako norgehiagoka jokatu zuten. Itxaso Iparragirrek Abantzuko Ayesaren aurka 2-0 (0-8 eta 2-8) galdu zuen. Nahiz eta Intzako kidea ederki jardun, zestoarra nagusi izan zen.



Udaberri txapelketako neurketa. TXINTXARRI

Bestalde, errendimenduko Udaberriko bikoteak azken jardunaldia jokatu zuen. Arrasateko Zubia-Osoro bikotearen aurka ederki borrokatu zuten Ekhi Maiz eta

Eñaut Huizik baina ezin izan zituzten nahikoa tanto egin; 8-16 amaitu zen lehia.

Villabonan ere alebinen berezko Gipuzkoako txapelketako azken neurketak jokatu zituzten. Oier Jauregik Arrasateko Martin izan zuen aurrez aurre eta aurkaria 16-8 gailendu zen.

Lau eta erdiko lehiaketan, Peru Urdanpilletak eta Beñat Olazabalek atsedean izan zuten eta partida bakarra jokatu zuten Intzako jubenilek. Haritza Diaz De Gereñuk LAPKEko Harreguyren aurka borrokatu zuen. Lazkaoko pilotaria nagusi izan zen ordea; 22-16 galdu zuen Intzako kideak.

Lehen fasea amaituta Urdanpilletak eta Diaz De Gereñuk finalerako bidea egingo dute; Olazabalek, aldiz, Ekialdeko txapelketa jokatu du.

Benjaminen Igerilari osoa txapelketan parte hartu dute

Buruntzaldea IKTko zazpi igerilari aritu dira Bergarako Agorrosin kiroldegian eta euren markak ondu dituzte

Txintxarri

Igerilari osoa Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa Bergarako Agorrosin Udal Kiroldegian lehiatu zuten hilaren 21ean. Lurrealde osoa benjamin mailako igerilariak batu ziren lehenengoz denboraldi osoan eta Buruntzaldea IKTko zazpi igerilarik gogotsu egin zioten aurre erronkari: 2011 urteko Ander Martinez, Liher Albizu eta Oier Jauregi; 2012 urteko Aitor Ormazabal, Aiala Erro Amy Y. Sanchez eta June Apeztegia.

Guztiek 50 m. tximeleta zein estilo libre, bizkar eta bular

estiloko 100 m. probetan igeri egin behar izan zuten. Sailkapena lau probetan lortutako emaitzen baturarekin egin zen eta adinen arabera.

Herriko taldeko igerilariak lehia bikaina eskaini zuten eta euren markak ondu zituzten.

Prestatzaileek jakitera eman dutenez, "oso gustura atera ginen haurrek egondako probekin, baita lehiaketa osoan izan duten jarrerarekin".

Hurrengo hitzordua ekainaren 10ean izango dute igerilari gazteek, Lasarte-Oriako 32. Saria.

ZORION AGURRAK




Maddi
Zorionak gure printzesita!!!! Askok maite zaitugu!!! Unax, Oier, aita eta ama.



Ainara
Zorionak Ainara, 6 urte!! Muxu potolo bat



Enaut
Zorionak Enaut!! Ondo pasa zure urtebetetze egunean! Maite zaitugu bihotzez! Oier, aitona eta familiaren partetik.



Jagoba
Atu anaza, zu daukazuna da uduritzazuna...bihar utekoa bat gehiago! Anaza bai, baina ez hatu tzupitokoa! Egun polita pasa, Ttakunkideon partez!



Maritxu
Maritxu nora zoaz, eder galant hori...Gero eta ederragoa, gainera! 24 edo 25, bi egunak "espezialak"! Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 27	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 28	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 29	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 30	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 31	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 1	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri **App Store** edo **Android Marketen**
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	3		6	1		2	4	8
1				9	4	6		
6	4		7	8		9		
	2	6	3	4		8		9
3			9	6		4		
4					7	3	6	
		4	1		9		8	
		3			6		2	4
		5	4		2		9	6

Sudoku10.net

OHARRA


Soka dantza prestatzeko saioak

Erketz dantza taldeak jakinarazi du hilaren 30ean hasiko dela ekainaren 23ko San Joan bezperako sokadantza prestatzen, Garaikoetxea-Landaberri ikastetxetan.


Asteartero egingo ditu entseguak, 19:00etatik aurrera. Ekitaldi horretan parte hartu nahi duen edonor joan daiteke saioetara.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 26




Larunbata, 27




Igandea, 28




Astelehena, 29




Asteartea, 30



Asteazkena, 31



Osteguna, 1



Deskontu bereziak herrikoentzat!

Sanpedroetako zenbaki bereziak ekainaren 23an eta uztailaren 7an

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66

ESKUTITZA

Azkena izan dadin

IÑIGO ETA PATXI AZPIROZ

Sei hilabete pasa dira gure Ama, Itziar M.I., Lasarte-Oriako Atsobakar zahar egoitzan zendu zenetik.

Denbora hau igarota, etxeakoak, atsekabetuta eta nekatuta gaude.

Amaren heriotza sinestezina dugu buruan eta guri gertatutakoa beste inori ez gertatzeko egin ditugun ahalegin guztiak, ezerezean gelditu diren susmoa dugu.

Gure iritiz, sinestezina izan zen Amaren bukaeraz ez gara asko luzatuko, hemen zertzelada batzuk:

- Iazko azaroaren 13an, goizeko 11:30ak aldera larrialdiko medikua iritsi zen Atsobakarrera eta ama azkenengotan zegoela adierazi zigun. Heriotza hain hurbil egonda, ospitalera igotzeko aukera azaldu genion eta berak, ospitalean eskainiko litzaiokeen zerbitzua, erizainak Atsobakarren eman zekiokela adierazi zuen. Horretarako beharrezko jarraibideak

ezarri eta erizainari jakinarazi zizkion. Helburua, amak ez sufritzea zen. Hasieran, amasketa zaratatsua eta sukarra arintzeko, morfina sartuko zien,... eta hilzorian egonez gero, sedazio aringarria erreskate gisa erabiliko zen.

- Arratsaldeko 19:30ak aldera ordea, ama ahotik lerdea botatzen hasi zen. Berehala auxiliarrengana jo genuen erizainari abisatzeko esanez. Horixe zen adostutakoa, zerbait susmatu orduko erizainari abisatzea medikuaren jarraibideekin segitzeko. Baina, auxiliarrek, erizainak alde egin zuela esan ziguten, zentroan, erizainik ez zegoela. Ama hilzorian eta bukaera arinduko liokeen sedazio aringarria jartzeko inor ez.
- Auxiliarrek, larrialdiko medikuari deitu ziotela esan ziguten. Hori bai, atezaina 20:00etan alde egin behar zuela eta medikuari atea zabaltzeko giltzak guri utzi zizkiguten.
- 19:30etik aurrera, bi anaiok, gelan, amaren lerdea garbitu nahian,

amaren ezina ikusiaz, bakardadean; inoren laguntzarik gabe egon ginen. 21:00etan hil zen arte. Medikua, 21:25ean iritsi zen zentrora, heriotza agiria sinatzeko.

Amaren heriotzako uneak hain gogorak izan zirenez, etxeakoak, Atsobakarreko Zuzendariari azalpenak eskatzea pentsatu genuen eta azaroaren 16an hainbat galdera egin genizkion.

Abenduaren 13an azaroan eginiko eskaera gogorarazi ondoren, eskatutako txostena urtarrilaren 18an iritsi zitzaigun. Gure ustez: txosten oso eskasa eta gezurrez bete.

Eta horrela adierazi genien Atsobakarreko Zuzendariari eta Kabia Elkarteko arduradunari urtarrilaren 27an eginiko aurrez aurreko bileran.

Bilerak ere, gure lasaitasunerako, ez zuen ekarpen handirik ekarri. Bilera bukaeran, Atsobakarreko Zuzendariari, 13 galderez osatutako txostena helarazi genion idatziz erantzun zezan.

Eta otsailaren 23an galderen erantzunak jaso genituen. Erantzun mingarriak. Ez dugu tarterik egindako galderei eta

emandako erantzunei buruzko errepasoa egiteko. Hona, Zuzendariak, hilabete eskaseko tartean emandako bi azalpen kontrajarriak:

- 2023-01-18: Zuzendariak onartu zuen gure Ama hil zen egunean, igandean, 19:30tan Atsobakarren erizainik ez zegoela.
- 2023-02-23: Zuzendariak, erizaina, egunero, goizeko 8:00etatik iluntzeko 21:30era arte egoten dela adierazi zuen.

Eta horixe da GAKOA.

Ez genuen uste honaino iritsiko ginenik. Nahikoa zen egindako hutsegiteak aitortu eta, halakorik berrituz ez gertatzeko konpromisoa hartzea eta neurri zehatzak martxan jartzea. Guztiok irabaziko genuen: egoitzak, egoiliarak, senitartekoak, langileak... Horretarako borondaterik ez dugu ikusi. Horrexegatik egiten dugu hau publikoa, neurriak har daitezzen eta inork nahi gabeko sufrimendurik pairatu ez dezan.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663 93 51 76 (Irati)

LANA

ESKAINITZA

Jalgi Kafe Antzokiak zerbitzaria behar du, astean 20 orduz lan egiteko eta, ahal dela,

berehala hasteko. Harremanetarako zenbakia, 696 55 29 25.

Etxeko lanak egiteko persona bat behar dugu, lanaldi erdiz. Harremanetarako zenbakia, 695 78 32 02.

Game Master bila gabiltza. Euskaraz jakitea, asteburuetan lan egiteko prestatutasuna eta Lasarte-Oriakoa izatea baloratuko ditugu. Bidali CV info@quantum.eus-era

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza.

Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke.

Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68. Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatu egina dut. Zubietan bizi naiz.

Harremanetarako zenbakia, 602 082 583. Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua

Interna gisa egingo nuke lan, asteleheneetik igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurlaritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

NABARMENDU ZURE EDUKIA
Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketa lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41
Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egun ez zegoen). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

SALEROSKETA
SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da.

Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Julene Iraola, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Endika Merchan eta Gorka Morales.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Erakusketa

Diego Matxinbarrena artistaren lanak erakutsiko dituzte Siglo 20 tabernan, ekainaren 20ra arte. Sarrera, doan.
Siglo taberna, 19:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ostadar SKT kirol elkarteak 40 urtez kirola sustatzen argazki erakusketa zabalduko du, ekainaren 2ra arte. Sarrera doakoa da.

Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Saharara emakumeak, resistencia y dignidad argazki erakusketa ekarri dute Insausti tabernara, hilaren 28ra arte. Bertan bizi diren emakumeen bidaletako irudiak ikus ditzakete herritarrek bertan.

Insausti taberna, egun osoan zehar.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Tailerrak

Lasarte-Oriako Udalak bi saio antolatu ditu herritarrentzat:

11:00etatik 13:30era, mandala tailerra Atsobakar auzoan.

12:00etatik 13:30era, ipuin kontalaria Zumaburu auzoan.

Atsobakar eta Zumaburu auzoetan, goizean zehar.

HERNANI Jaialdia

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) eskualdeko jaialdia antolatu du, Kolpez kolpe lelopean.

11:00etan eskualdeko futbito finala hasiko da, Latsunben.

14:30ean, bazkaria, Atsegindegina. Ondoren, sari banaketa, Iago Magok girotuta.

19:00etan, kirol ikuskizuna Atsegindegina.

23:00etatik aurrera, Gaztetxean, musika, Rage eta Bikañia DJen eskutik.

Hernanin, egun osoan zehar.

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Kirola

Zabaletako I. Pala Txapelketa eta Infernuko III. Pala Txapelketako azken faseetako norgehiagokak



LASARTE-ORIA Pala txapelketak. Zabaletako I. Pala Txapelketa eta Infernuko III. Pala Txapelketako azken faseetako partidak jokatuko dituzte Zabaleta auzoko pilotalekuan. Jarduera baten eta bestearren artean bazkari herrikoia egingo dute, eta Donostiako auzo okupatu horren alde topa. Partaide bakoitzari bere edalontzia eramateko eskatu diote egitasmoaren antolatzaileek.

Etzi, hilak 28, Zabaletako pilotalekuan, 10:30etik aurrera.

jokatuko dituzte. Egitarau hau prestatu dute:

10:30etik aurrera, Zabaletako I. Pala Txapelketako partidak.

14:00etan, bazkari herrikoia.

16:20ean, topa, Infernuaren alde.

16:30etik aurrera, Infernuko III.

Pala Txapelketako finalurrekoak eta final handia jokatuko dituzte. Horrez gain, bazkalostean sorpresak egongo direla aurreratu dute. Herri bazkarirako izena eman nahi dutenek 659 35 59 48 telefono zenbakira deitu edo infernupala@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar dute. Partaide bakoitzak 7 euro edo ahal duena ordaindu beharko du eta edalontzia eraman. Zabaletako frontoia, egun osoa.

ASTEARTEA 30

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako jaiak hasiko dira. Hau da egitaraua:

18:00etatik 20:00etara, haurren jolasak: Talentu bila eta serigrafia.

20:00etan, Gas, gas dantzatu, goxoraketak, buruhandiak eta Akelarrerako entsegua.

Auzoan zehar, 18:00etan hasita.

ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako jaietako bigarren eguna. Hau da egitaraua:

18:00etan, Kukukako ikasleen antzerki emanaldiak.

18:30etik 20:00etara, eskulanak haurrentzat.

20:00etan, Gas, gas dantzatu, goxoraketak, buruhandiak eta Akelarrerako entsegua.

Auzoan zehar, 18:00etan hasita.

EKAINAK 1

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Emakumea eta kirola hitzaldia antolatu du Ostadar SKT kirol elkarteak. Sarrera, doan.

Antonio Mercero gunea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako jaietako hirugarren eguna. Hau da egitaraua:

18:00etatik 20:00etara, haurrei zuzendutako apar festa.

18:30etik 20:00etara, pintxo potea.

19:00etatik aurrera, Dinbi Banda batukada taldearen emanaldia.

20:00etan, Gas, gas dantzatu, goxoraketak, buruhandiak eta Akelarrerako entsegua.

Auzoan zehar, 18:00etan hasita.

EKAINAK 2

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako jaietako laugarren eguna. Hau da egitaraua:

18:00etan, txokolate jana.

18:45ean hasita, Teresa

Sorginarekin kalejira, auzoko kaleetan barrena.

19:00etan, Teresa Sorginari ongi etorria frontoian: jaietako pregoia, Jalgune elkarteko kideen dantzaldia eta Sorgin Dantza herrikoia.

19:30ean, Gas, gas dantzatu, goxoraketak eta buruhandiak.

21:00etan, afari auzotarra. Norberak berea ekarri!

23:00etan, Kukuka eskolako Euskal Dantza Sorkuntzako ikasleen emanaldiak.

00:00etan, rock kontzertua.

01:30ean, Bide Batez taldearen kontzertua.

Auzoan zehar, 18:00etan hasita.



EKAINAK 3

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako jaietako bosgarren eguna. Hau da egitaraua:

09:00etan, diana.

10:00etan, herri kirolak, haurrentzat.

11:00etan, Xumela koruaren kantu jira, auzoan barrena.

11:30ean, Joxe Migel Aranzadiren Omenezko XIV. Eskoba Txapelketa.

13:00etatik 15:00etara, bermut musikatua, Ankoker taldearekin.

15:30ean, Joxe Migel Aranzadiren Omenezko XIV. Mus Txapelketa.

17:00etan, erraldoiak, buruhandiak eta dultzaineroak, LOZET elkartearekin elkarlanean.

17:30etik 20:00etara, pala txapelketako finalak, Elektropottote txarangaren saioa eta Kukukako ikasleen emanaldiak.

20:00etan, bertsolariak: Ane Labaka, Lierni Rekondo, Aitor Mendiluze eta Iñaki Zelaia. Zigor Iriondok jarriko dizkie gaiak.

21:00etan, Gas, gas dantzatu, goxoraketak eta buruhandiak.

21:30ean, herri afaria.

23:30ean, Akelarre dantza.

23:50ean, zezensuzkoa, LOZET elkartearen eskutik.

00:00etan, Alarma Morea taldearen kontzertua.

01:30etan, Rukula taldearen kontzertua.

02:30ean, DJ Fantasiaren kontzertua.

Auzoan zehar, 09:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Musika

Zabaleta auzoko Arima tabernak DJ emanaldi bat antolatu du. Sarrera doakoa da.

Arima taberna, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Festa

Ostadar SKT kirol elkarteak denboraldi amaierako festa egingo du: Kirolari Onenaren eta Auzolan sariak banatu, saileko talde guztietako jokalariei jatorrenei aitortzak egin eta hirugarren denborarekin ospakizuna itxi, jan-edanarekin, Beltzak errugbi eskolako kideen eskutik. 40. urteurrena ospatzeko azken jardura izango da.

Michelin frontoia, 11:00etan.

EKAINAK 4

LASARTE-ORIA Jaiak

Zabaletako jaietako azken eguna. Hau da egitaraua:

09:00etan, diana.

10:30etik 11:00etara, patata tortilla txapelketa.

11:00etan, Kukuka eskolako Euskal Dantza taldeen emanaldiak.

12:00etan, herri kirolak: Ane Zapirain, Amairu Arbelaiz, Julen Gabirondo eta Beñat Telleria.

12:00etatik aurrera, auzo girotuko du Oaintxe in deul txarangak. Bitartean, LOZET elkartearen erraldoiak nahiz buruhandiak jira eta bira ibiliko dira.

13:00etan, proba misto nagusia.

14:30ean, herri bazkaria, Oaintxe in deul txarangak girotuta.

18:00etatik 20:00etara, Andoni Ollokiegiren kontzertua.

18:30etik aurrera, toka txapelketa herrikoia.

20:30ean, azken traka eta Teresa sorginari agurra.

Auzoan zehar, 09:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Musika

Zabaleta auzoko Arima tabernak DJ emanaldi bat antolatu du, Arima Soul System: DJ Makala eta Lidia Insausti ariko dira. Sarrera, doan.

Arima taberna, 17:00etan.





Maite duzun Lasarte-Oria

ehbildu



EGINGO DUGU.

